AZILLA
22
Igandea
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. lau hil.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtea
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldaren itunduba

XIV urtia || Idazkolea ta Lanakolea: Correo, 17, 1. || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.459 zenbakija

Gayak

¿BIJOTZIK ETE-DAUKE, GERO?

"Galerna" ixontzijan Bilbaorantz etoran paxizten espe jausi ixan zan emakume batekin izketalditxu bat egiteko zorija ixan dogu. Eta emakume arek esan ixan dabezanakaz, afituta geratu ixan gara.

"Galerna" ixontzijan France'tik Bilbao'rantz etorala paxizten menpe jausi ixan zan emakume au, Donostia'ko "Ondareta" espetxian egon ixan da. Eta an ikusi ixan dabezan ikuskari negargarijak bijotzeratu ixan dautsoen bijoz-miñak bijoz-barne dirauntsa ondiño.

Donostia'ko "Ondareta" espetxetik azkatu-bari dala, Bizkai'ra etori da, emen aurkitzen dan bere ama kutuna besarkatuten.

Eta aldi luzian ikusi barik eukan ama kutuna besarkatuteko zorija ixan dabenian, Donostia'n eta abar ikusi ixan dabezan negargarikerijen oroipenak oldartuta-edo, negarak-negar egiten asi ixan da.

"Galerna" ixontzija paxizten menpe jausi zan—esan d a u s k u. France'ko itxas-uretan zala jazartuten asi yakazan, eta suaga-bidez eta abar euren menpe artu-arte etziran geratu—bayeztu eban.

Gaberdi-inguruba zan—darai emakume mindubak—"Galerna" ixontzija Bizkai'ko uretara eldu zanian, eta paxizten menpe jausi zanian.

Paxizten ixontziko agintari batzuk, "Galerna" ixontzira sartu ziran, eta emakume ta ume, euren guda-ixontzira eruateko agindu eben. "Galerna" ixontzijan ezagunak ziran notin asko etori ziran: Ariztimuño jaupari agurgarija, Saizar'tar Pantzeska donostiar ezaguna, Lixara'ko Juriko pelotari ospetsuba, ta berein ezagun... Eta ¡gusti-gusti orein erail ixan dabez!

Espe artu ixan gendubezanian—diño emakume mindubak —Pasajes'era eruan ixan gendubezan. Eta an, guri itxaroten egozanen artian "eréketé" agintari asko ikusi ixan gebazan. An ikusten gebazan "eréketiak", gustijak ziran ixardunak. Gipuzkoako lurari oñakaz ukutu eutsaneko, Ariztimuño jauparija, lurera jausi zan, eta abotik odola erijola jari. Une aretan asi zan Ariztimuño gaxua baxen euzkeltzale ospetsuba zan jaupari agurgarijaren nekaldija.

Emakume ta umiak, nasatik zuzenian eruan gendubezan, Donostia'ko Joseba Deuna'ren Soroski - Etxe'ra eruan be. Eta an, eskuturik-eskutubeneñoko gustija arakatu euskuben... Ure - bitxirik, txindirik edo onelako gauza aldintsurik ete-genkaren, bila ibili yakuzan... Baña, ¡bai zera! Ezertxu be ezeuskuben idoro ixan, atzerijan bixiteko txindirik ez gebalako, aberirantz gentozanok uretzarik ixan be ezin geinkian-eta. Ure-jabiak-eta, bertan geratu ziran... Paxizta aberats okitu gustijak, andik dira, ba...

Gero, bariz, "Ondareta" espetxera eruan gendubezan. Eta orain egun batzuk dirala azkatu ixan gatubezan-arte, antxe euki ixan gatubez.

Eta espetxe aretan, suizkiluz erail ixan dabezanak, asko dira. Erailketa negargarijoik gabeko amabijak baño lentxubago egiten ebezan. Erailketa-orduba eltzen zan bitartian, baña, beriala erailteko ixentauta ebezan ziñopa-geyak, paxizten eten bako zemaipian bixi biara ixaten eben.

Bein gabeko amabijak joten ebenian eta egun-uratzerantz egiten asi, Donostia'ko "Ondareta" espetxian gentza-aldi txiki bat nabatuten zala esan ejkian.

Donostia'ko "Ondareta" espetxian aurkitzen ziranen artian eguan Romanones'en erena (nuera) be. Emakume oren gixona, Romanones'en semia, paxizten artian Erkala'ri gudea egiten aurkitzen ei-da, bariz. Romanones'en erena dan emakume bijozdun ori baña, paxizten egiñen ezeskarijak jasan ezinda, arein aurka eguan zeozertxu esaten azartu ei-zan... Eta auzarkeri a zigortu egin biar-ta, Erkala'ren aurka matxinada gogorian dabilan Romanones gastiaren emastia be, paxizta bijozgiak, espetxera sartu ixan eben.

Beasain'go emakume gaste bat be, bixar-labañjaz buruko ulia kendu ixan ba'leutsoen lez, antxe, "Ondareta" espetxian aurkitzen zan, buru-motz zala baztaren irigari aurkitu be. Emakume gaste arek, buruko adats edera kendutia baño samingarijagua yakan oñazerik ixan eban. Aureko gau baten, ba, paxizten suizkiluben daunbadotsak entzun ebazanaz batera, bere amatxu kutunaren iltamuko azken "ayene" ituna entzun biara ixan eban-eta...

Donostia'ko "Ondareta" espetxetik azke dala Bizkai'ra etori ixan dan emakume mindu onek azkenian esan dauskuna, auxe da: Donostia'n paxiztak suizkiluz erail ixan dabezan abadjak, espetxian edatu zanentz, 50 inguru ixan zirala, ta beste amabi lekaide buruñurdun.

Erailketa negargari gusti orejk Donostia'n egin ixan dabezala jakin-onaldiz Gipuzkoa'ko ta Euzkadi'ko uridoren, Bizkai'rantz egiteko azkenengo rik apañena ta alayena ixan zan Donostia gaxuari begiratu ixan eutsanian, itun be itun ikusi ebala, esan eban, areik beñolako edertasun eta alatasun gustijak galdu ta ondatu yakazan uri ilaren antza artu eutsala-ta.

Etaituntasun, naigabe ta bijotz-samin gusti arei atazko bidia azkatutiaren, negarez asi zan, paxizta ankef gentza-zaliekana ekari ixan daben zoritxarari negarak-negar egiten...

¡Oi, paxizta ankerak! Zubek, ankertzaroik, alakuoik, "erlejiñuaren" (?) ixenian egiten dozubezan gaiztakeri gusti oreik yaoken naurijaz zigortuteko gai dan zigorik, ¿ixango ete-da, ixan...?

¡TAMALIK-TAMALENA, BARIZ...!

Tamalik-tamalena, bariz, benetako zinismendun asko eta asko erailtzale oreikin nastauta aurkitu biara da.

Paxiztak, Gipuzkoa'n, Araba eta Nabara'n be, euren egiñen ezeskarijakaz oinpian zapalduta dauken "erlejiñua" antzikurtzat aurretik imiñita, "abade", "prale" ta "moja"-gañokuak erail ixan dabez.

Bizkaya'n, ostera, "paxizta" ez "paxiztaen erlejiñorik" eztagon Bizkaya'n, "abade" bat be ezta erail ixan, ezta "prale" ez "mojarik" be. Bizkaya zaintzen dabenak, baña, eri-aldezliak dira, Jaun-Goikua eta Lagi-Zara aldeztubaz, azke bixiteko jayo ziran gixon eta emakumen eskubidiak aldeztuten dakijenak.

Egija ikusi gura dabenak begijak zabalduteko, egi ederak eta gordiñak bein, emen idatzi doguzanak. Ondiño be itsu-antzo bixi zarien kistaro'k, zabaldu, aren, zeuben begijoik, benetako argi-mutil bako itsubak nora jausten diran ba-dakixube-ta.

IBON.

Gudaritza - abestija

("Zu ixan ziñan Sabin ma-tia" lez abestuteko.)

Euzko-gudariz beterik dagoz
Ibarak eta mendijak,
Daunbada-otsak entzuten dira,
Ta guda-irintzi zolijak.
Euzko-ziñopen odol gorijaz
Margozten gure erijak.
Une onetan negar dagije
Ama askoren begijak.

Josu on orek, lagun zakiguz
Itxaso asare onetan,
Olatu malmutz bildurgarijak
Artu ezkalzan azpijan.
Otzo ankerok ernai doguz, ba,
Gure txabola-aurian,
Euzko-artaldia jateko ustez
Barauratzen diranian.

¿Zeintzuk dira, ba, arerijuok?
¿Nortzuk gure erailtzaliak
Beti agintzen bixi nai daben
Afoputz aundi-zaliak.
Euzko-ixatia kendu nai dabe,
Ondatu bere semiak.
¿Ori agintzen ete-dautse, ba,
Goiko Jauna'ren legiak?

Apirka-aldetik agertu yakuz
"Regulares" ta mairuak,
Kistartasunen aurka dabiltzan
Zinisge Jainko bakuak.
Lixunkerizko egiñenatan
Of dabiltz, pizti galduak.
—¿Nortzuk ekari ixan dauskubez?
—Paxizta "katolikuak" (?)

Igalijetan ezagutzen da
zelakua dan zugatza,
Gixonak be, ba, egipenetan
erakusten dau bijotza.
Parixetarak nai ixan dabe
Guzuraz egin garaitza.
Baña erija itxartu da-ta,
Etsayok alper dabiltza.

Jaunan agintzak danoi diñosku
Geidiai lagunduteko,
Baña orekandik ikusita dau
Zer dagon geidientzako.
Menpetasuna, erijotzea,
Gosia langilentzako...
¡Euzko-erijen erukarija
Orein menpian ba'lego!

Alperik dabiltz arerijuak
Atzerijagaz batuta,
Doistar, Portugal ta Itali'ren
Guda-izkilubak artuta.
Orain-arteko samin-aldijak,
Euzkadi'k naikua dauz-ta,
Gauf bijotzetik didar dagigu:
¡Gora Euzkadi azkatuta!

EIZTARI.

Esanak izan biurtu

Bai, irakurle. Amaika aldiz entzun oi degu lengo karlatarен gudaldiaren buruzko izketaldirikan. Nere aitona ere (G. B.) an ibilia bait nuan. Amaika aldiz egondu naiz, neguko aize ta kazkabarari iges egiñaz, eta su ondoko atsegiñetan bere babesean exerita, guda aretako gora berak entzuten. Iñobatxo—zion—ondamendia zan ura. An il uken nere lagun aundi bat ere.. ¡Jesuus!, zer ukan ura.

Au esan zan, gertatua izan aren, baño ara ostera izan biurtu. Guda, beti gorotagari izan eta dau guda madarikatuak bere beso ziztriñarekin artu gaitu eta bere ezaungari dan eriotza, naigabea eta ondamendia azaldu.

Guda au dala bide, amaika, erugek utzi du bizitza, amaikak, euron artean, apaiz jaun agurgari ta beste zenbaitek Jaunak nai dezala len bait len itzaldutzia guda onen izpi txar au, eta pakearen ikurin txuria gure artean zabaldutzia. Ala nai dezala otoitzan daigun.

KAI-ALDE.

"Itxaxe-alde" taldeari ikurriña opari diote, Lekeitio'n

Ez giñenkigun ezer, ba. Eta ora aldi eder baten ikusmirau.

Azte azken goizean, amaika ta erdiak ingurua izango zan. Egazkiñak "bermout" a eman oi duen garaia zala, giñon alkari, Lekeitio ontako enparantzan eguzki goxoa artuaz giñan lagunak (e! "Altzeta"!.

Ontan, zerbait gertatzen zala eta... "bra, bra, bra, bra" gudari taldearen oin-otza.

Erezkadan, enparantza erdian. "alto" egin zuten.

Zer ote dago? galdetu giñaun alkari.

Gure artekoak, ez jakin giñan.

Onetan, azaldu zan ikurin bat, edera, euzko-Jel-ikuriña. Apaiz jaun agurgaria, Lekeitio'ko "Bikario" a aureratu eta onespendu zuan ikuriña. Gero andereñoak eskiñi zioten taldearen gudalburuari. Onek, ikurin-eramalearen ezkuetan jari zuan eta taldea, ikuriñaren agurpena egiñik, irunako erezkadan bere auretik igaro zan.

Jel ikuriña zutik ¡gora Euzkadi! oyua zutsuak ziran. Txaloak ugari. Nola ez ba, Lekeitiarak txalotu anai taldeari.

Ikusgai au ikusita, zerbait jakin zale galdetu nuan. Baita zerbait jakin ere.

"Itxas-alde" gudari taldea zala au ikusi genduana. Geienak lekeitiarak omen dira eta gudalburu baita ere Lekeitio'ko semea Ordorika'tar Ander.

Ikurin edera, Lekeitio'ko eri aberztzalearen izenean eskiñi ziotela, Uri Buru Batzareko agintariak laurez zirala, E. A. B.'ko lendakari dan Elordi'tar andereñoak, Erkiaga'tar andereñoa lagun zuala.

Ara emen goiz artako aldi ona, eta nere "kuriosidadeak" jakin duana.

Aberztzale egintza danez eta, nere zorion eta txalorik beroena U. B. B.'ar, E. A. B. eta andereñoai, baita "Itxas-alde" gudari taldeari.

Eta zuek "Itxas-alde,,'ko gudari taldeko bulartsuok, entzun:

Lekeitio'ko enparantzan d e z u t e n Udal-etxeko ikuskiaren idazkian, itz auek azaltzen dira: "Reges debellant" "Erege bakaldunak", oinperatu zituan, Lekeitio'k. Ara zuen egin bearren deia. Zuen aurekoak, eriaren izen ona, oinperatu naian zetozten bakaldunak birinduaz gorde zuten. Zuek Lekeitio'ko gudari "Itxas-alde" taldeko bulartsuok, Jel ikuriña goi-goian ipiñita, gogor, indartsu zuen asabaen antzera, eriaren izen onagatik, erege-zaleak "pazistak" menperatu, birindu eta zuen eriaren eta Euzkadi'ren aintza izan bear dezute.

Zuen eriko ikuskiaren idazkia, len baño ere izki aundiagoaz idatzi dezatela; Lekeitio'ko eriaren aintza, zuen egintzak jaso dezatela.

Aurera, "Itxas-alde" taldea. Gora, Jel ikuriña! ¡Gora Euzkadi Azkatuta!

IXAKA.

(Lekeitio'tik.)

"ERRENDERIAR OIARTZUNAK"

Alperkeri biziari lotuta nengoan. Guda arazoak nagitua nunbait. Orain ordea, noizpeinka benik, zertxobait idaztea erabaki det. Gauz aundirik ezin idatzi nezakela badakit, bañan, besterik ez bada ere, erenderiar euzko-gudarion beri tartéka emango dizuet.

Erenderiar gudari geyenok "Itxarkundia" saildi edo "batallojean" gaude. "Orereta" eta "Oarso" konpañietan banatuak.

Saildiko komandante, Lizaso'tar Pilipa degu eta konpañi bi oietako kapitanak Sansinenea'tar Koldobika eta Lizaso'tar Alexander, denak eritarak beraz.

Orain egun batzuek-arte Gernika'n gendun gure Gudaletxea. Eta orain Bermeo'ko Josu'ren Biotza'ren Gudaletxean gera, osasun bikañagaz Jaungoikoari esker.

Eritik urundutakoan, eri ta erikoak zeñen maitagari zaizkigun. Orain dala amabi egun, Beriatua-gañean geundelarik, bat-batean "Aya'ko Aria", oyartzuar mendi bikaña jari zan ene begien aurean. ¡Ura nere poz eta samintasuna!

Ordu erdi luze bat igaro nuan oldozkor, berari begira...

Ludi ontan maitien dituan guziak mendi andi aren azpian, inguru-inguruan nitualа, bururatu zitzaidan...

Sendiaren beri, maiteena ditugunen beri gabe bizitze au zeñen ituna dan. Laister ikusi eta bezarkatzea opako al digu Jaungoikoak.

Zenbat eta zenbat irakaspen eman dizkigun guda zital madarikatu onek.

Orain bai dakigula sendi-kabiaren goxotasuna.

Gaur bai degula egari guraso-maitasuna.

Jainkoaren naia orela izango dala-ta gogo onez daramazkigu nekaldi abek guztik; gañera, Jaungoiko eta Aberia zaintzen guda egitea baño gauz aundiagorik bai ote?

Bizkai aldean zeraten eritarak, agur idazten jarraituko degu...

ANDONI.

Matxinada-izparrak-eta

Guda-aldijetan gauza bakan asko jazoten da, ta gauza barегari ta barагari asko ikusi be.

Asturias'en, aspaldijotan, ganorazko gudaketa gogorik ezta egiten. Alde bitzubetako gudarijak, euren igeslekubetan ostenduta dirala, ez aurea ez atzera, bakotxa bere lekuban geldi aur kitzen dira, ba.

✤ ✤ ✤

Jagi, igitu ta ibilteko egiña dan gixakija, baña, geldi egoteko ezta gauza. Eta Asturias'ko gudarijak be, alde batekuak bestekuakin gudakateren bat eztabenjan, alkarekin izketan eta jolas-antzeko ipuñakañokuak bata-bestiari edestuten iñarduten dira.

✤ ✤ ✤

Alkarekin iñoz asarerik ez asare-zijorik ixan eztaben bi, edo anei, zegatik eztakijela bata-bestia erailten sutoska ta aiztokadaka ibili biar ixatija, baltza be baltza da.

Iru edo lau gudalburu aroputzek eka ri ixan daben matxinada onetan bata-bestia erailten dabiltzan paxizta-aldeko ta Erkal-aldeko gudarijak be, ba, olakoxiak dira: alkarekin iñoz asaratu bakuak, bata-bestia ezagutu be egiten eztabenak.

Eta ¡jakiña!; gudari onejk, gudaketa-bitartietan bakotxaren igestokitik-igestokira bariketalditxubak egiteko erea ixaten dabenetan, gudaruan bixi dirana be aiztuta, bata-bestiaz ipuñak edestuten asten dira.

✤ ✤ ✤

Atzo, ezer egin barik egoten asperituta, Erkal gudarijak. Nalon ibayaren iztabuko ondartzan ostiko-jokua jokatu eben. Eta beste aldian euren igeslekubetan aurkitzen ziran paxizta-aldeko gudarijak, txaluak txalo joten eutsiezan.

✤ ✤ ✤

Gudarijen buruzagijak gudaketa gogoren bat beriala gertetan ezpa-dabe, gertau, paxizta ta erkaldar bata-bestiakin guda-oñerik-guda-oin ostiko-jokuan jolastuten ikusiko dira.

Eta zentzunaz izpidiari begiratuten ba-dautsagu, gudalburu aroputzen arokerijak guda-oñetaratuta aurkitzen diran mutilak, euren etxietan bixiko ziran. Eta gauf alkar erailten dabiltzanak, alkarekin jolastuko ziran, alkarekin btsarkatu be.

✤ ✤ ✤

Madrid-aldian, ostera, jolasaren ordez, gudaketa gogorak egiten dira.

Ipar-aldeko guda-oñetik aureratu guran igitu ixan ziran zaldizko mairu gudarijei ezari ixan eutsen zigora ixan zan paxiztei egunotan ezari ixan yaken zigorik gogorena. Zaldi ariñetan aurerantz egiten asi ziran bosteuneko taldia, ezebezian edo asko geyago barik laga ei-eben, ba. ¡Ango zaldi-ganekuak jaustia, itzaletan be itzala ixan ei-zan...!

✤ ✤ ✤

¡Mairu gixagaxuak! Atzipetuta ekari ebezela nai txindi-otsera etori ixan zirala, euren burubak galtzeko lekura etori ziran beñepein.

Euren burubak galtzeko tokira, ta beste batzubenak ondatuten...

Mila etori ixan ba-ziran, bi mila eztira Apirka'ra itxuliko, beñepein. Ez. Mahoma'k be olako alatzik eztautsoe egingo.

✤ ✤ ✤

Anei, nai amar anei etori ixan ba-dira be, etori ixan diranen erdijak eztira euren aberira itxuliko, ezta laurenak be. Etori biar ezeben tokira etori ixan diran mairu jopu gixagaxuak, banakaren bat ez bestiak, emen geratu biara ixango dira. Baña ez, eurak uste ixan eben lez lur-gane artzen dabena jaten, lurpe, ar eta kokuen janari ixateko baño.

✤ ✤ ✤

Ortxe, Madrid'en, beste eguntxu batzuk geyago orain artian lez gudaketeari eutsi-ezkero, paxizten adoria ta gurenda-itxaropenak be betiko lotara juango dirala, ardura barik esan leike.

Gixagaxo aundijak, alakuak, Madrid'ko atietan eurak uste ixan eben baño esi senduaguak idoro ixan dabez, ba.

Eta esi senduok ausi ta aurerantz egiteko, esi-ausle asko ta kementsubak biar dira. Paxizten kemena, bariz, amatubaz dua.

Eta atzeriko laguntzea gitxituten ba-yake, gitxitu, paxizta-gudarijen kemena be, amatuta geratuko da.

Orain-arte erakutsi ixan daben kemena be, ba, atzeritik artu ixan daben laguntzeari yaokana ixan dabe, ta ez euren adore-indararena.

✤ ✤ ✤

Matxinada au, azken-aldera elduten asi dala esan leike. Eta bein galureraño elduten danian, galuretik berakua beriala egingo dau.

Eta paxiztentzat galureraño elduta dago, edo ija elduban. Eta nekez-kekezka goiko galureraño eruan ixan daben matxinada-burdija gan-bera asten danian, gabil edo galga bako burdijaren antzian, galdugordian jatsiko da, ta amildegitik bera amilduriko-antzo, geyago bururik jasoko eztaben lez betiko ondatuta geratu.

Orixe ixango da matxinada onen amaya.

Kanpantzar'ko Guda-oñean

TELERIA'TIK.

Aspaldiz geunkan geure mendijoik, paxizmuak ondatuta daukozan euzko-mendi-kutunok garbituten etorteko gogua-ta, berau bide dala ogei egun omen dirazalarik etori gintzan guda-oin onetara.

Ilunabara zan belbilak mendi-ertz baten laga gebazanian. Ordu-erdi bat inguru biar geban bitxabaletik toki onetara elduteko. Tokira eldu baño len baña, nata zugatz-artetik etori, lasterr konturatu ziran eréketiok lepotik dindinlizka genkarezan estalki zurijakin eta iñundiko balaen txistu-otsak inguratu gebazan, eurak geure soñak zulatuterik gura ezpageban buleñakin lura jotera bearturik ikusijaz. Gudearen ezaunge ta esturaldi oneik iraunirauten otu barik oraindik, ezkenduban uste geyago geure eri txukunak ikusterik, guraso ta anai-arebak besarkatu ez enparauko adiskide ta matiekin aldi gozorik iraunterik...

Alkargandik urean dagoz guda-oñak, ain urean ze, bein eguzkija agurtabaz laño baltzak mendijoikiro jaubetuten asten dirazanean entzutekuak ixaten diraz alde batetik bestera egin oi-diran berbaldijak. Geure berbaldi ta egi-garatzak ez entzutiaren baña, batesbere gudarijak dagozanean, "radijua" ipinten dabe bere zarateaz geure abotsa itz dagikian, beronegaz agertzen dabela atzipetuta daukezana. Bata be emoten dauskube euren izpar edo euren izpaingijetan agertzen diran garaitzen bari-be. Eurak diñoenez España ta Euzkadi'ko lur gustijen jaube diraz. Bizkai'ko "txatal" au ta beste garantzi bako zatijen baten ixan ezik, eta eurok be egun batetik bestera artungo ei-dabez... Eurai gorotorik aundijena damotsen diadara, beragan euzkotasunik daukona da, alan da-ze "gori" gustijak be gora Euzkadi azkatuta diadarka dantzuguz.

Eurakandik geure-artera datozanak dirauskubenez, ta geuk ikusten dogunez, guztiz indar gitxi daukoe alde onetan, euretatik geyenak naparтar eta arabarak dirazalarik. Orainguan geure aurian aurkitzen diranak erekete ta Guardia de Asalto'kuak diraz. Gudarijakin "falangistak" egoten dira, biar ba'da obeto zaindutiaren. Langilien agertu oi-diran eguna igandia ixaten da; egun onetan goxerik gabera landuten dabez daukoezan izkilubak. Oraintxurenguan goxan - goiz agertu zan euren "parapeto"-ganian bakaldarijkuriña axiak apainkiro egaz tuten ebalarik; baña gu-be lo-egiteko ezkara ona etori-ta, txakurak arija eskuban ikustian buztena anka-artian eskutau oi-daben legez, belarijak apaldu ta eskutau-biara ixan dabe. Egunokaz, baño aundija egon be-ta, lan asko egin dabe; baña ez izkilubakin, matxuke ta enparabakin "alanbradak" ipinten baño. Aurezki "alanbradok", eurak iñoen legez, Bizkaya menpetuten urtetako ixango diraz...

Baña jakin begije erekete-falangista, monarkiku naiz enparauko zantar gustijak Euzkadi'k benetako seme-bakar bat daukon-artian, euzko-aberztzale bat luren-ganian bixirik gelditzen dan-artian eztabela ez bakarik aurerantza ainkada bat emongo, ezpada aldi gitxi baru euzko-lur gustijetatik igesi biarko dabela, geure egari-bakara aurerantza egiteko diadaroi entzutia dalako, zein aldi gitxi-baru ixango dala uste dogun. Bitartian geldi geure tokijetan aurerantza egin barik, baña eztabe atzerantz ara bat lur galdu geure odolaz goritu barik.

IBAL-GANE.

ERRIJETAT

Mañari

BEDERATZIUREN A.— Garbi gogoen alderako bederatziurena go barikuan asi zan. Iluntzijetan ten da, ta ildako gustijen aldez oskatzen da. Jaunak donoki-arg gitu begiz.

AGURTU.—Igandian argurtu emen. Euba'tar Joseba abade Bata Lamikiz'tar Julen abade be astartian agurtu gendun em

JUAN-ETORIJAK.— Axpe Mena'ra juan ziran Untzalu'tar ta Ezeolaza'tar Miren emakum tiak.

—Igandian egon zan emen "Euzkel-idazle bizkoia.

—Otxandijo'tik etori ziran Kepa ta Josu ata-semiak.

—Elgeta'tik etori ziran Edubige ta Kaulde anderak eta ra'tar Elene anderañua.

"MOTXOKUENEKO" J E N T Bilbao'ra juan dira alditxu ba Azkarate'tar Jeronima aberkide re seme-alabakaz eta Nortza Todor mutil gastia.

Bergara'ko aberkide oneiri, "kuen" etxia, beingo-beingoan aztuko orartik... Bertan lako ab ta umoria, edonun eztabe aur egingo-ta... Abegi-ona bariz, atsotxuak esaten ebanez, ogiri ja da... Ondo ibili Bilbo-aldetik.

LUGIÑAK.—Irak eta gaztañ tu dabez, aurten, gaztañia, gi da, aspaldikorik gitxien. Orai -batzen diñardube, ta gari-ere asi dira. Artua polito dago.

"ANBOTO". — Astelen ara egon zan emen "Anboto" euzk le trebia. bixerdun zaldun bat ebala.

"Anboto" idazlia, geuk ezken si, baña... eri-onetan sorgin dagoanentz, "olako zeren" bat irizkituen batetik begi zoliz iku la edo... Eta, esan dauskubene boto" adoretsua, bape bildur -onetan "trankil-trankil" egon Bai-ba, mañaritarokaz bakiak igaroriko udan egin be egin eta... Besteia...! Betiko asaria dok ixan be.!

"AIXERIXA,,'RI.—"Mirentxu" ri" ta "Atxolin" euzkel-idazle z aldi onetan nun aurkitzen dira gura genduke; uste dogu. aizk tzaz, zuk zeozer jakingo do Ezer badakixu, izpaingi-onen al-bait ariñen mesedez esan zu, arduratan gagoz-ta. Eske retik emonaz, agur dagitzut xa" zintzua.

MAÑAR

GERNIKA

ZUGATZ - IDAZTIAN.—Nol zera arakalditxu bat egiten Batzar Etxian dagoan Idaztian.

Atzo irakuri genduzan oldozk en artian, ementxe ipinten biok irakuri genduzan. Urila'r Euzkadi'ko Jaurlaritza sortu nian idatzitakoak dira biok.

Ona emen. Jaurlaritza gusti petu eta Agire'tar Joseba An nak bere eskuz idatzi ta itxi e

"Euzko agintariak Gernika'k pian batuta, geure eriaren izen tzen dabez euren izenak. Zor izan dedila bere agintza, eri e tasunaren alde".

Onez ganera, Leizaola jauna bakarik, auxe idatzi ta izenpe

"Gernika'n orain amalau urt -Ikastola Nagosia eskatzeaga tiatu niñuten; gaur Gernika -Lantze ar'oa Euzkadi'ko len dakariak nere gain jartzen du nengo Jaurlaritzan ba, Euzko Nagosia irastea nere gain gel Jaunari eskef anitz. Leizaola Mirena."

ESKONTZAK.—Igaro zan Jaupa nagosian entzun gendu ter alkarbustartuko dira:

Basabe'tar Luke, neskatilea, ruria'tar Andoni, Innotara; e dar Ixidore eta Itzagire'tar

Zorionak eta urte askotako.

IDAZKI BAT.—Kanpantzar -oñean idatzita, idazki bat ari ure Batzokian, Iragori'tar An lefunken", adiskide maite eta zutsuak idatzitakoa da berau.

Ondo dabiltzazala geure e tiak dirausku "Telefunken,,'ek eranzkadea egiteko gertu dag egotia ez ei-da, baña, Batzoki artu eta barikietan egotia.

"Telefeunken" diskide on idazkia pozik irakuria izan do txu idatzi. Aberkide eta eri orei esan egiyok emen guztien osasuna dagoala, eta euren keskarik ez izateko.

Torezuri'tar Jon Gurutz, lu tar argia igaro zan astian zan. Ondo ibili.—Belu-Mendu.

JAI EDER

Gauf, igandez, Koikile deu na dala-ta Gernika'ko eresi -Batz eta Elai-Alaik antola nika'ko pelota tokian, afats ta erdietan, Gizarte-Laguntz dezko jai eder bat izango d

Egitaraua:

1'g. Eres-Batza'ren jotald

2'gn. Biña-biñako pelota bizkajtar bik, beste gipuz aurka.

3'g. Soka-tira deritxon j

4'g. Elai alaiko neska - dantza ikusgarjak.

Onen ondoren eromeria rastokian.